



Tuterako la Serna industriagunean garraiolari bat azaldu da hilik bere kamioan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 13/12/2023

55 langilek galdu dute bizia Euskal Herrian 2023an dagoeneko.

Atzo goizean Tuterako la Serna industriagunean beste garraiolari bat azaldu da hilik bere kamioan. Honekin garraiolarien artean bederatzi langile galdu dute bizitza urte honetan. Ikerketak zabaldu duenaren arabera, istripu ez traumatikoa izan da heriotza eragin diona, ohikoa izaten den bezala, izan ere garraiolarien artean, 2022an, lan heriotzen %75 izan ziren "ez traumatikoak".

Lan heriotza hau kontuan izanda 55 langilek galdu dute bizitza Euskal Herrian 2023an zehar.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/tuterako-la-serna-industriagunean-garraiolari